



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Marcelino Bazterrica Alchu
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera
Carmelo Ayoroa Hualde
Pedro José Alchu Ariztegui

2014ko maiatzaren 15ean, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzten dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO 2 BILKUREKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. J.G.T.k lizentzia eskatu zuen *Artzenea* etxeari teilatua konpondu eta fatxadak pintatzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea G. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 9.647,40 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 289,42 euro.

2. J.L.E.G.k lizentzia eskatu zuen *Berrurtako* bidean porlana botatzeko, bidearen luzera eta zabalera errespetatuz. Bide horretatik ur-biltegiara joaten dela kontutan hartuz, Udalaren parte hartzea eskatu zuen ere. Obra horiek lurzoru urbanizaezinean egin nahi dira eta Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako Zerbitzuak jarduera baimendutzat hartzen du (2013-05-15eko jakinarazpena). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- Obrak egiteko lizentzia ematea E. jaunari.
- Udalak parte hartzea obretan, auzolanak antolatuz.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. LINDUTXEKIN TRATUAN IBILTZEKO BATZORDEA.

Lindutx enpresarekin tratuan ibili zirela iaz esan du alkateak eta gaia berpiztu behar dela. Datorren astean bilera egitea erabaki da. Ahal duenak parte hartuko du bileran.

4. LATSAGAKO UE 2KO URBANIZAZIOA AZTERTZEKO BATZORDEA.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Ez da lortu oraindik bilera egitea 1 poligonoko 11 partzelako jabearekin eta Latsagako UE 2ko sustatzaileekin, UE 2 unitatea urbanizatzeko gaia aztertzeko. Aho batez erabaki da bilera hori berehala antolatzea Gabriel Laborra arkitektoarekin. Bilerara joango den Udalbatzordea izendatu dute, partaide hauekin: alkatea, Jagoba Manterola, Mikel Gereka eta Milagros Erreguerena.

Carmelo Ayoroa eta Pedro José Alchu sartu dira.

5. 2013KO KONTUAK.

2013ko kontuen espedientea aztertu ondoren, eta kontuen batzorde berezia bezalako funtzioetan, aho batez erabaki da:

1. Aldeko txostena ematea 2013ko kontuei.
2. Espedientea jendurrean jartzea 15 eguneko epean.

6. MENDI KOMUNALEN ANTOLAMENDU-PROIEKTUAREN BERRIKUSPENA.

Basarteak egindako agiria aztertu ondoren, aho batez onetsi da Ituren eta Elkarrikoako mendi komunalen antolamendu-proiektuaren berrikuspena.

7. ZENBAIT ESKAERA.

1. Idazkariak esan du M.E.A.k deitu zuela esateko *Artzenea* etxearen aurrean porlana hautsi dela eta putzua egiten dela; zati horretan dagoen porlana konpontzea eskatu zuen. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da zuloa konpontzea.

2. Idazkariak irakurri du Iturengo eskolako zuzendariak aurkeztu duen idazkia, eskolan egin behar diren konponketen zerrendarekin. Zerrenda eta konpontzeko agindua albinteari ematea erabaki da. Gela bateko lurrian dagoen mugimendua aztertzea erabaki da ere.

3. Carmelo Ayoroa Hualdek lizentzia eskatu zuen, 2 poligonoko 87 partzela ur-sareari lotzeko, ahuntzak hazitzeko. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ur-sareari lotura egiteko lizentzia ematea Ayoroa jaunari, baldintza hauekin:

- Urbanizazioko Ordenantzaren 10. artikulua jartzen dituen baldintzak bete beharko ditu.
- Ur-sarearekin lotura egiten duen puntuan desbideratze arketa bat eraiki beharko du.
- Lursailaren sarreran arketa eraiki beharko du, bertan ontza (pulgada) erdiko ur-kontadorea jarritz.

Carmelo Ayoroak ez du erabaki honetan parte hartu.

4. Iturengo Guraso Elkarteak baimena eskatu zuen karpa jartzeko plazan, eskolako ikasturte amaierako besta ospatzeko. Baimena ematea erabaki da aho batez.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

5. I.B.A.k leku bat eskatu du, ludoteka zerbitzua emateko uztaila eta abuztuan. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki dute kontsultategi zaharra erabiltzeko baimena ematea. Erantzukizun zibileko aseguruaren baldintzak aztertuko dira, jarduera hau sartu ahal izateko. Baldintzak jakinaraziko zaizkio B. andreari.

6. O.E.M.k, Aurtizko gazteen izenean, Mendaurko urtegia mahaia berritu eta barbakoa eraikitzeko materialak Udalak ordaintzea eskatu zuen. Lana, auzolanean egingo dute gazteek. Aho batez erabaki da, mahaiaren neurria eta materialen aurrekontua eskatzea gazteei.

7. Lurzatiak ixteko baimena eman zaio aho batez M.R.d.S.ri, 2 poligonoko 149 partzelako itxitura berritzeko pikete eta alambrearekin. Baldintza hauek bete beharko ditu R.d.S. andreak: hirugarrenen eskubideak errespetatu behar dira eta lurzati komunalak eta bideak ixtea debekatua dago.

Jagoba Manterolak ez du erabaki honetan parte hartu.

8. Aho batez onetsi da Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasunak bidalitako mozioa, Garinoaineko Udalaren funtzionamenduari buruz.

8. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Ez dago ebazpenik.

9. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Aho batez erabaki da laneko arriskuen prebentzio-zerbitzua kontratatzea Asepeyo mutuekin.

2. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Lurraldearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 442/2014 ebazpena, J.A.E.ren aurka hasitako hirigintzako legezketasunaren babesarako espediente eta espediente zigortzailea ebatzi zituena; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak — J.A.A. eta J.A.U.ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioaren Ebazpena, 2014ko apirilaren 10ekoa, J.A.A.ri baimena eman ziona baso-aprobetxamendua egiteko.

3. Jarraian, *Malerrekako Egune*ko egitaraua azaldu du Mikel Gerekak. Iturengo Udalaren kargu dauden lanak banatu egin dira. Mikel Gerekak aipatu du, zozketarako ez bada diru nahiko lortzen, Udalak ordaindu beharko duela dantzarien eta joaldunen gosaria. Alkatea eta Milagros Erreguerena joango dira harrera ekitaldira eta lekukoa pasatzeko ekitaldira.

4. *Trinitate Eguna* ospatuko da ekainaren 15ean eta ohiko auzolana antolatzea erabaki da.

10. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 21:55ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745